

# EUSKAL EGUTEGIAK

## GAURKO EGUTEGIAK

Urte barri. Bizi barri?

Kazkarra\* eta beste gauzak lengoai eukita al ete leike ori?

Egutegiei, kalendarixuei begira gagoz  
Nun da aldakuntza?


Teknikaz, agerbidez, argazkiz, ko lorez... leike. Apain, dotore, ikusgarria goak oraingoak.

Bestelakoz?

Gero ta andre zaleago. Urtetik urtera, edozein be, ez al goaz zaartuten', Ba zaarrago ta lizunago\* esan bear

## EUSKAL EGUTEGIAK

Euskal egutegiak falta dira gure artean, gure bizitza, izate ta ingurua egutegi lez, agertu leikenak.



Izkiz (letraz) eta gogoz.  
Esanez eta esan naiez.

Ikurrin bat edo beste agertzeaz beteten ete da nai ori? Ez. Ez eta kate edo burdin sareez margotuta.

Ori une bateko esan naia, egoaldi bateko gertaera eta naia izan leiz.

Egutegia, urteko egunen giroa, noiz zer eta noiz zelan, noiz nun eta noiz nor, ori egiteko dogu, euskal begiz beintzat.

Erri baten giro osoa gogoratuko leuken egutegi on, ikusteko dogu.

Kuarta tenporak, santu batzuen jai inguruko gertaerak, sasoiko siniste, egitura, gogoaldi, premiña eta abar, lengo eta gaurko gure istori zarra..., au da, erriak bere oituretan dabillan egutegia, jasoteko dogu.

Erriaren biotzari ikutu eta atsegiña edo naigabea piztu nai gogoratzekoa, oraindik ikusteko.

Gaitz dala?

## ARGI BIDEAK

Artu, aukeratu edozein erri.

Urte barri egunak berak zenbat burubide asieratik?

Eta beste ainbat sasoi eta jairek, zenbat?

Goazen erri batera. Nik erraz eta urren daukadanera, argibide baterako. Berritua.

Ez al litzake polita izango, beste askoren artean, eta beste errietako goraberen artean, bere nortasun bereziko egutegi errikoi au?

*Urtarilla*'k 1. Urte barri. Urte barri-barri, daukanak eztaukanari emon bear sarri.

*Otsailla*'k 2. Kandelarixo. Andrak andra andi kandelariotan dira agiri.

*Otsailla*'k 3. San Blas.—Ari bedeinkatua saman lotu ta katarro ta estulak blast.

*Maitza*'k 9. San Gergorixo.—Be-larriko miñak kentzeko eroan santuari botilla bete orixo.

Beste esakera: Euri apurra, antxoa adurra.

*Bagilla*'k 24. San Juan, San Juan, nik ez daukat besterik goguan, arrautza bi kolkuan, beste bi altzuan, garien tokiak gertu barruan, lapur ta sorgiñak erre basuan.

*Bagilla*'k 29. San Pedro bedarrak bigundu ta eltzen ditue gizonen zaldarrak\*.

San Pedro bedarrak batu ta Berri-tukoari erakusten etorten ei ziran ondarrutar emakumeak, gero bedar orreik txalopetan ipinteko, brankan\*, gerrian eta popan. Txalopak erramutan erabilten ziranean, bedar oneik ei ziran onenak gizonen odol batu eta gogortadak biguntzeko.

*Garilla*'k 22. Neskazarrak joaten dira Madalenara, Madalenara, santiari eskatzera nobio bana, komeni bada. Santak egiten dautso baruari dar dar, alperrik ez negar...

*Dagonilla*'k 10. San Lorentzo'k esku baten sua, Asterrika'n otz dana berua.

*Iraila*'k 2. Santi Antolin, txistu ta tambolin, gona barrenak aidian gau guztin.

*Iraila*'k 9. Ama Birgiña Gardotzako, gure ume au ez da ezetako, ez argitzeko, ez argitzeko.

Iru zapatutan etorriko naz ta mesedetxu bat beretzako.

*Iraila*'k 14. Santa Krutz Irailleko, idi zarrak ilteko.

Eta orrela beste ainbat, jai bakoitzean bat, emen edo an askoren gogoetan bizi diranak.

Santuekin bakarrik ez. Ba dira santuekin zer ikusirik ez dauken egunak. Esate baterako:

*Epailla*'k 1. (1974). Madrid'en, mimmstroen batzarrean, Berriatuari ostikada.

Erri au Ondarroa'k irunsiteko legeko akulakada.

Zenbat beste orrelako? Ez al litzake antzerako zerbait euskal egutegi jator izango?

A. ZUBIKARAI